

# **Kannabisaren terapiarako erabilera mugimenduaren asalduretan**

*Teresa Morera-Herreras, Cristina Miguelez, Asier Aristieta,  
José Ángel Ruiz-Ortega, María Torrecilla*

Farmakologia Saila. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea (UPV/EHU)

teresa.morera@ehu.es

Jasoa: 2013-01-28

Onartua: 2013-06-20

**Laburpena:** Aurkitu ostean egin izan diren ikerkunzek agerian utzi dute endokannabinoidoideok funtzio fisiologikoetan duten parte-hartzea. Hain zuzen ere, sistema honen osagaiak (estekatzaile endokannabinoidoak, hartzaileak, biosintesirako eta degradaziorako proteinak) badaude mugimendua kontrolatzeten duten garuneko zirkuitu eta nukleoetan (gongoil basaletan) eta ondorioz, parte hartzen dute funtzio motorren erregulazioan, batez ere dopaminaren maila modulatuz. Bestalde, gongoil basaletan sistema endokannabinoidoean aldaketak deskribatu dira seinale dopaminergikoa gutxitua dagoenean, Parkinsonen gaixotasunean gertatzen den bezala. Horregatik, lanabes berri bezala proposatu da mugimenduaren asaldurak tratatzeko sistema endokannabinoidoaren modulazioa.

**Hitz-gakoak:** Kannabinoidoideak, Gongoil basalak, dopamina, Parkinsonen gaixota-suna.

**Abstract:** The discovery and the following investigation of the endocannabinoid system have demonstrated its implication as a modulator in a large variety of physiological functions. In fact, the components of this system (endocannabinoids, receptors, proteins for their biosynthesis and degradation) are present in the circuits and nucleus that control the movement (basal ganglia) and, consequently, it is involved in a motor function, basically, modulating the dopamine level. On the other hand, when the dopaminergic signal is lower, as happens in Parkinson's disease, there are changes in the endocannabinoid system. Therefore, it has been suggested that endocannabinoid system modulation may constitute a new therapeutic approach to the treatment of motor disturbances.

**Keywords:** Cannabinoids, Basal Ganglia, dopamine, Parkinson's disease.

## 1. SISTEMA DOPAMINERGIKO ETA KANNABINOIDEOAREN ARTEKO ELKARREKINTZA FROGATZEN DUTEN EBIDENTZIA NEUROANATOMIKOAK


Hartzaile kannabinoideoak, estekatzaile endokannabinoideoak eta biosintesirako eta degradaziorako proteinak dira sistema endokannabinoideoaren funtsezko osagaiak [1]. Gaur arte, bi hartzale kannabinoideo mota klonatu dira: CB<sub>1</sub> eta CB<sub>2</sub> [2,3]. Hartzaile hauek egitura heptahelikoidala dute eta G<sub>i/o</sub> proteinei lotutako hartzaleen familiakoak dira. Hartzaile kannabinoideoak eta endokannabinoideoak dentsitate handian espresatzen dira gongoil basaletan; garuneko gune hau funtzio motorren erregulazio zentralaren erantzule da. Gongoil basalak nukleo ezberdinez osaturik daude: *striatuma*, *substantia nigra pars reticulata* (SNpr) eta *pars compacta* (SNpc), nukleo subtalamikoa (STN) eta *globus pallidusa* (kanpokoa (Gpe) eta barnekoa (GPi)) (1. irudia).

Nukleo hauetako gehienak GABAergikoak (inhibitzaileak) dira; STN da nukleo glutamatergiko (kitzikatzalea) bakarra, eta SNpc, aldiz, nukleo dopaminergiko (modulatzalea) bakarra. Nukleo hauen arteko jarduera orekatuta mantendu behar da mugimendu arruntak eta koordinatuak ahalbidetzeko. Gongoil basaletan, hainbat nukleoren arteko elkarrekintzen ondorioz, bi bide nagusi daude, «bide zuzena» eta «zeharkako bidea». «Bide zuzena» aktibatzen denean informazio motorra *striatumetik* GPi-ra/SNpr-ra transmititzen da eta handik talamora; ondorioz, mugimenduaren aktibazioa bultzatzen da. Ostera, gongoil basaletako «zeharkako bidea» aktibatzen denean, informazioa *striatumetik* GPe-ra, STN-ra eta azkenik GPi-ra/SNpr-ra doa eta mugimendua inhibitzen du.

Ikerketa neuroanatomikoeak ahalbidetu dute gongoil basaletako nukleoetan dauden hartzale kannabinoideoen kokapen zehatza ezagutzea. Gongoil basaletan aurkitu diren CB<sub>1</sub> hartzaleak direla-eta, goi mailako expresioa ikusi da [4,5,6,7,8]. Hartzale honen RNAm *striatumeko* [5] eta STN-ko neuronetan aurkitu da, eta bere expresioa gehienbat neuronen bukaera mailan gertatzen da: bukaera subtalamonigraletan eta subtalamopaliadaletan [5,8], aferentzia glutamatergiko kortikoestriataletan [9,10] eta *striatumetik* GP eta SNpr-rantz doazen proiekzioetan [8,11] (1. irudia). Nahiz eta CB<sub>2</sub> hartzaleen expresioa eztaba idagarria izan [12], hartzale honen RNAm SNpr-ko eta *striatumeko* glia zeluletan aurkitu da [13].

Proposatu da transmisio dopaminergikoarekin duen elkarrekintzaren ondorioz, sistema endokannabinoideoa gai izan litekeela funtzio motorra aldatzeko. D<sub>1</sub> hartzale dopaminergikoak espresatzen dituzten neuronek «bide zuzena» osatzen dute eta D<sub>2</sub> hartzale dopaminergikoak espresatzen dituztenek, berriz, «zeharkako bidea» (1. irudia) [14,15,16,17,18]. D<sub>1</sub>/D<sub>2</sub> eta CB<sub>1</sub> hartzaleen transdukzio-mekanismoek (adenilato ziklasak/G-proteinak) elkarri eragiten diote [19,20]. CB<sub>1</sub>/D<sub>1</sub> hartzaleen edo CB<sub>1</sub>/D<sub>2</sub> har-

tzaileen aktibazio bateratuak mugimendua inhibitzen du, nahiz eta batek adenilato ziklasa inhibitu eta besteak estimulatu. Hau hartaile dopaminergikoek duten kokapen desberdinaren araberakoa da [21,22,23]. Datu haueitatik ondoriozta daiteke sistema endokannabinoideoek, gongoil basaletako zirkuitu motorreko erre regulazioan parte hartzen duela *striatumeko CB<sub>1</sub>* hartzialeak aktibatuz.



**1. irudia.** CB<sub>1</sub> eta TRPV<sub>1</sub> hartzaleen kokapena eta haien expresioa D<sub>1</sub> eta D<sub>2</sub> hartzale dopaminergikoekin gongoil basaletako zikuitoen sinplifikatutako eske- man. Bide inhibitzaile GABAergicako urdinez errepresentatuta daude, bide kitzi- katzale glutamatergikoak gorri eta bide modulatziale dopaminergikoak berdez. GPe, kanpoko *globus pallidus*; GPi, barruko *globus pallidus*; STN, *nukleo subtalamikoa*; SNpc, *substantia nigra pars compacta*; SNpr, *substantia nigra pars reticulata*.

Azken urteotan, beste hartzale kannabinoideo bat deskribatu da, TRPV<sub>1</sub> («*transient receptor potential vanilloid type 1*») izenekoa, baina bere expresio neuronala eta funtzionaltasuna oraindik ez dago argi [24,25,26]. Hala ere, nahiz eta bere expresioa murritza izan, badirudi TRPV<sub>1</sub> hartzalea gongoil basaletan expresatzen dela, alegia bukaera nigrostriataletan eta tirosina hidroxilasa positiboak diren SNpc-ko zeluletan [26,27] (1. irudia). Horrek iradokitzen du hartzale honen kokapenak neurotransmisió dopaminergikoa modula lezakeela.

## **2. GONGOIL BASALETAKO SISTEMA DOPAMINERGIKOAREN ETA KANNABINOIDEOAREN ARTEKO ELKARREKINTZA FUNTZIONALAK**

Ikerketa funtzionalen eta portaerari buruzko ikerketen emaitzek iradoki dute sistema kannabinoideoak gongoil basaletako transmisió dopaminergikoaren zeharkako modulatzalea bezala joka lezakeela.

### **2.1. Portaera-ikerketak**

Kannabinoideoek sistema motorrean sorturiko eraginak transmisió dopaminergikoan sortzen dituzten aldaketeen menpekoak dira. Δ<sup>9</sup>-THC, WIN 55,212-2, CP 55,940, edo anandamida bezalako kannabinoideo sintetikoek zein endogenoek asaldura motorrak sortzen dituzte marraskarietan: katalipsia eta ekintza motorren gutxipena [28,29,30,31,32,33]. Are gehiago, anandamidaren garraioa edo hidrolisia murrizten duten farmakoek mugimenduaren abiadura gutxitzen dute arratoietan, hau da, hipozinesia eragiten dute [34,35]. Honekin lotuta, CB1 hartzaleen antagonista den Rimobanantek, hiperaktivitate motorra sortzen duelarik, kannabinoideoek sorturiko hipozinesiareni kontrako eragina dauka [36]. Honetaz gain, CB1 hartzaleak ez dituzten saguek (CB1 knockoutek) zenbait asaldura motor dituztela ikusi da [37,38]. Aurkikuntza hauek kannabinoideoek sorturiko asaldura motorrak CB1 hartzaleekin uztartzen baditzte ere, beste ikerlan batzuek TRPV1 motako hartzaleei egotzi dizkiete anandamidaren eraginak [30].

Ildo honetatik jarraituz, proposatu da gerta litekeela kannabinoideoen eta transmisió dopaminergikoaren arteko harremana zuzena ez izatea, ikerketa neuroanatomikoek ez dutelako neurona dopaminergikoetan CB1 hartzileirik topatu [39,40]. Hala eta guztiz ere, kannabinoideoek zeharka dopaminaren maila alda dezakete eta GABA eta glutamato-transmisióen gutxitzea eragiten dute gongoil basaletan [9,41,42].

### **2.2. Ikerketa elektrofisiologikoak eta neurokimikoak**

*In vivo* egindako saio elektrofisiologikoek agonista kannabinoideoek SNpc-n aktibitate neuronala kitzikatzen dutela erakutsi dute [43,44,45]. CB<sub>1</sub> hartzaleak SNpc-n oso urriak direnez [39,40], agonista kannabinoideoen eraginak zeharkako efektua izan behar du; gongoil basaletako beste nukleoetako CB<sub>1</sub> hartzaleen aktibazioaren bitarbez. Izan ere, SNpr-n CB<sub>1</sub> hartzaleak bukaera subtalamonigralean daude eta haien aktibazioak glutamatoaren askapena inhibitzen du [41]; ondorioz, GABA transmisióa txikitu eta SNpc-ren aktibitate neuronala handitzen da [45].

CB<sub>1</sub> hartzaleetan eragitean ikusten den SNpc-ko neuronen aktibitatearen igoera bat dator *in vivo* egindako mikrodialis-saioekin, non agonista

kannabinoideo exogenoak edo endogenoak administratzean *striatumean* dopaminaren askapenaren handitzea ikusi den [46,47]. Hala ere, *in vitro* *striatumeko* ehun-ebaketetan egindako ikerketek erakutsi dute CB<sub>1</sub> hartzileen aktibazioak ez duela dopaminaren askapenean eraginik [10]. Ondorioz, esan daiteke kannabinoideoen efektu motorrak ez direla neurona bukaeretan eragiten dutelako gertatzen, SNpc-ko neuronen frekuentzia harremanetan dagoelako baizik.

CB<sub>1</sub> hartzaleekin harremanetan dauden mekanismoak ez bezala, TRPV<sub>1</sub> hartzaleekin harremanetan dauden kannabinoideoen efektuek zuzenean eragiten dute dopaminaren transmisioan. Hain zuzen ere, anandamida endokannabinoideoak eta analogo batzuek (baina ez kannabinoide klasikoak, adibidez, Δ<sup>9</sup>-THC-k), neurona nigroestriatal dopamnergikoen aktibilitatea murriz dezakete TRPV<sub>1</sub> hartzale postsinaptikoak aktibatuz [30]. Hala eta guztiz ere, ikertzaile batzuek SNpc-ko TRPV<sub>1</sub> hartzaleak aktibatzean dopaminaren askapenaren handipena deskribatu dute [48,49], nahiz eta handipen hori SNpc-ko bukaera glutamatergikoeitan dauden TRPV<sub>1</sub> hartzaleak kitzikatzearen ondorioa izan daitekeen, eta ez bukaera dopamnergikoetako TRPV<sub>1</sub> hartzileen eraginaren ondorioa.

### **3. SISTEMA DOPAMINERGIKOAREN ETA KANNABINOIDEAREN ARTEKO ELKARREKINTZAREN ONDORIO PATOLOGIKOAK**

#### **3.1. Sistema kannabinoideoaren funtzioa Parkinsonen gaixotasunean**

Aurretiaz esan bezala, ikerketa neuroanatomikoek agerian utzi dute hartzale kannabinoideoak gongoil basaletan daudela. Sistema endokannabinoideoak funtzió motor fisiologikoan duen eraginaz gain egoera fisiopatologikoetan ere funtzió garrantzitsua du. Parkinsonen gaixotasunean (PGan) mugimenduaren asaldura gertatzen da, eta hori gongoil basaletako dopaminaren galerarekin harremanetan dago. Animalia ereduetan eta gizaki gaixoetan egindako ikerlanek erakutsi dute neurona dopamnergikoen endekapenak desoreka sortzen duela gongoil basaletako «bide zuzenaren» eta «zeharkako bidearen» artean. Desoreka honen ondorioz *striatumeko* neurona GABAergikoen aktibilitatean aldaketak gertatzen dira. Alde batean, «bide zuzeneko» neuronen aktibilitatea murriztuta dago, eta bestetik, «zeharkako bideko» neuronen aktibilitatea handitura dago. Honetaz gain, endekapen dopamnergikoaren eraginez kortexetik *striatumera* doan transmisió glutamatergikoa handitura dago [50,51,52,53].

Hainbat ikertzailen proposatu dute sistema endokannabinoideoaren modulazio farmakologikoa onuragarria izan litekeela seinale dopaminer-

gikoa gutxitua dagoen egoera patologikoetan (PGan gertatzen den bezala). PGan sintoma motor nagusien agerpena endokannabinoideo maila altuekin harremanetan dago [54,55]. Gainera, zenbait ikerlanetan CB<sub>1</sub> hartzaileen maila altuak aurkitu dira parkinsona duten primate eta gaixoen *striatum mean* [56,57]. PGaren arratoi ereduetan eginiko ikerketek era guztiako emaitzak islatu dituzte. Batzuek tonu endokannabinoideoaren handipena deskribatu dute [50,58,59], beste batzuek, aldiz, murrizketa [60,61,62], eta badaude aldaketarik ikusi ez dutenak ere [33,63]. Animalia ereduetan lortutako emaitza heterogeneoen eragilea erabilitako metodologien desberdintasunetan egon daiteke [64].

PGaren animalia ereduetan, kortexaren eta *striatumaren* arteko transmisio sinaptikoa ez da normala [63,65,66,67]. Zenbait ikerlaren emaitzek iradoki dute balitekeela transmisio sinaptiko hau gehienbat endokannabinoideoek kontrolatzea [68,69], seguruenik beste mekanismo batzuek ere parte hartzen badute ere. PG duten gaixoetan sistema endokannabinoideoaren- manipulazio farmakologikoak ahalbidetzen du *striatumeko* transmisio sinaptiko fisiologikoa berreskuratzea; horrela, endekapen dopaminergikoak sortutako gabezia motorra hobetzen da [63].

Ildo beretik, PGaren animalia ereduetan egindako ikerlanen arabera, sistema endokannabinoideoaren modulazioak eragina izan dezake. Arratoietan eragindako parkinsonismoak sortzen dituen portaera-aldaketak, CB<sub>1</sub> hartzaileen antagonisten administrazioak hobetzen ditu [70,71,72]. MPTP toxinarekin, neurona dopaminergikoak hiltzen dituelarik, lesionatutako makakoetan, CB<sub>1</sub> hartzaileen antagonisten administrazioak aktibitate lokomotorra handitzen du, baina ez ditu hipozinesia eta jarreraren ezezonkortasuna arintzen [73].

Kannabinoideoen onurak ez dira PGaren sintomak arintzera mugatzen. Azken urteetan, zenbait ikerlanen emaitzek iradoki dutenez, farmando hauek interesgarriak izan litezke eragin neurobabesleak eta hanturaren aurkakoak erakutsi dituztelako, bai zelula kultiboetan bai PGaren animalia ereduetan [56,74,75,76,77]. Nahiz eta CB<sub>1</sub> hartzaileen eragina ezin den guztiz baztertu, zenbait egilek CB<sub>1</sub> hartzaileek neurobabesean duten parte hartza minimoa izan litekeela defendatzen dute [56,75,78,79]. Esan beharrekoa da kannabinoideoek eragindako neurobabesa gehienbat, substantzia hauek duten eragin antioxidantzailearen eta CB<sub>1</sub> hartzaileen aktibazioarekin harremanetan ez dauden beste faktore batzuen ondorio dela [56,76,80]. Adibidez, CB<sub>2</sub> hartzaileen aktibazioa da astrozito eta mikrogliako zeluletan sortzen den hanturaren aurkako eraginaren eragilea. Nahiz eta mekanismoa zehatz ez ezagutu eta ikerketa gehiagoren beharra izan, hartzaile kannabinoideoen modulazioa erabilgarria izan daiteke neurona dopaminergikoak PGak sortzen duen etengabeiko neuroendekapenetik babesteko.

### 3.2 Sistema kannabinoideoaren zeregina L-DOPA-k eragindako diskinesietan

PGaren sintomak tratatzeko aukera farmakologikoen artean L-DOPA da gehien erabiltzen dena. L-DOPA-k, dopaminaren aitzindaria denez, beste farmakoek baino hobeto zuzentzen du desoreka dopaminergikoa eta horren ondorioz sintoma motorrak. Hala ere, PG tratatzeko farmakorik era-ginkorrena izan arren, tratamendu kronikoetan L-DOPA-k eragin kaltegariak sor ditzake. Eragin kaltegarri hauek kontrol gabeko mugimendu anormalak dira eta gaixoen % 40k pairatzen ditu bost urteko tratamenduaren ostean [81]. Zoritzarrez, oraingoz ez dago L-DOPA-k eragindako diskinesiak (LED) tratatzeko farmako eraginkorrik.

Laborategian egindako ikerlanen arabera, kannabinoideoak erabilgarriak izan daitezke LED tratatzeko. LEDen *striatum* glutamato maila handitura dago eta transmisio sinaptikoaren asaldurak deskribatu dira. Agonista kannabinoideoek eragin antidiiskinetikoak izan ditzakete, *striatum* glutamatoaren askapena kontrolatzen dutelako eta transmisio sinaptiko normala berreskuratzen lagun dezakelako. Izan ere, beste farmako batzuek (esate baterako agonista serotonergikoen) LEDak hobetzen dituzte kortexaren eta *striatum*-ren arteko transmisio glutamatergikoa murrizten dutelako [82].

Orain arte, ikerketa ugari egin dira LEDaren eremuan kannabinoideoen funtzioa argitzeko helburuarekin. Hala eta guztiz ere, orain arte animalietan eta gizakietan lortutako emaitzetatik ezin da ondorio zehatzik atera. Animalia ereduetan, agonista kannabinoideoek LEDak murrizten dituzte CB1 hartzaleen bidez [60,83,84]. Gainera, CB1 hartzaleen ezabaketa genetikoak diskinesien garapena saihesten du parkisonismoa duten saguetan [85]. MPTP toxinarekin lesionatutako makakoetan eta PG duten gaixoetan emaitza kontraesankorrak aurkitu dira. Izan ere, CB1 hartzaleen kitzikapenak [61,86] edo blokeoak [73] LEDak hobetzen dituzte. Ordea, gizakietan egindako beste ikerketa batzuetan ez dute aurkitu kannabinoideoen eragin positiborik LED zuzentzeko [74,87]. Bestalde, parkisonismoa duten animalietan L-DOPAren batera egiten den CB1 antagonisten administrazioak, farmako antiparkinsonianoak eragiten duen sintoma motorren hobekuntza eragiten du [72]. Datu hauen arabera, farmako antiparkinsonianoak eta antagonista kannabinoideoak terapia bateratuan erabiltzeak L-DOPAren dosia gutxitzea ahalbideratuko luke eta L-DOPAren tratamendu kronikoaren ondorioz sortutako eragin motor kaltegarrien agerpena atzera lezake.

Lehen esan den bezala, PGan sistema endokannabinoideoa aldatuta dago eta sistema horren modulazio farmakologikoak sintoma motorrak hobe ditzake. Hala ere, kannabinoideoen LEDaren gaineko zeregina ez dago guztiz argituta eta ikerketa gehiago behar dira. Amaitzeko, argi dago sistema endokannabinodeoak transmisio dopaminergikoa kontrolatzen duela mekanisko zuzenetan eta zeharkako mekanismoen bitartez. Horren ondorioz, sistema honiek garrantzia izan dezake mugimenduaren asaldurak tratatzeko.

## BIBLIOGRAFIA

- [1] DI MARZO, V.; MELCK, D.; BISOGNO, T. eta DE PETROCELLIS, L. 1998. «Endocannabinoids: endogenous cannabinoid receptor ligands with neuromodulatory action». *Trends Neurosci*, **21**, 521-528.
- [2] MATSUDA, L. A.; LOLAIT, S. J.; BROWNSTEIN, M. J.; YOUNG, A. C. eta BONNER, T. I. 1990. «Structure of a cannabinoid receptor and functional expression of the cloned cDNA». *Nature*, **346**, 561-564.
- [3] MUNRO, S.; THOMAS, K. L. eta ABU-SHAAR, M. 1993. «Molecular characterization of a peripheral receptor for cannabinoids». *Nature*, **365**, 61-65.
- [4] HERKENHAM, M.; LYNN, A. B.; LITTLE, M. D.; JOHNSON, M. R. eta MELVIN, L.S. 1990. «Cannabinoid receptor localization in brain». *Proc Natl Acad Sci U S A*, **87**, 1932-1936.
- [5] MAILLEUX, P. eta VANDERHAEGHEN, J. J. 1992. «Localization of cannabinoid receptor in the human developing and adult basal ganglia. Higher levels in the striatonigral neurons». *Neurosci Lett*, **148**, 173-176.
- [6] MACKIE, K. 2005. «Distribution of cannabinoid receptors in the central and peripheral nervous system». *Handb Exp Pharmacol*, 299-325.
- [7] MARTIN, A. B.; FERNÁNDEZ-ESPEJO, E.; FERRER, B.; GORRITI, M. A. eta BILBAO, A. 2008. «Expression and function of CB1 receptor in the rat striatum: localization and effects on D1 and D2 dopamine receptor-mediated motor behaviors». *Neuropsychopharmacology*, **33**, 1667-1679.
- [8] TSOU, K.; BROWN, S.; SANUDO-PENA, M. C.; MACKIE, K. eta WALKER, J. M. 1998. «Immunohistochemical distribution of cannabinoid CB1 receptors in the rat central nervous system». *Neuroscience*, **83**, 393-411.
- [9] GERDEMAN, G. eta LOVINGER, D. M. 2001. «CB1 cannabinoid receptor inhibits synaptic release of glutamate in rat dorsolateral striatum». *J Neurophysiol*, **85**, 468-471.
- [10] KOFALVI, A.; RODRIGUES, R. J.; LEDENT, C.; MACKIE, K. eta VIZI, E. S. 2005. «Involvement of cannabinoid receptors in the regulation of neurotransmitter release in the rodent striatum: a combined immunochemical and pharmacological analysis». *J Neurosci*, **25**, 2874-2884.
- [11] HERKENHAM, M.; LYNN, A. B.; DE COSTA, B. R. eta RICHFIELD, E. K. 1991. «Neuronal localization of cannabinoid receptors in the basal ganglia of the rat». *Brain Res*, **547**, 267-274.
- [12] ATWOOD, B. K. eta MACKIE, K. 2010. «CB2: a cannabinoid receptor with an identity crisis». *Br J Pharmacol*, **160**, 467-479.
- [13] GONG, J. P.; ONAIVI, E. S.; ISHIGURO, H.; LIU, Q. R. eta TAGLIAFERRO, P. A. 2006. «Cannabinoid CB2 receptors: immunohistochemical localization in rat brain». *Brain Res*, **1071**, 10-23.
- [14] NICOLA, S. M.; SURMEIER, J. eta MALENKA, R. C. 2000. «Dopaminergic modulation of neuronal excitability in the striatum and nucleus accumbens». *Annu Rev Neurosci*, **23**, 185-215.
- [15] O'CONNOR, W. T. 1998. «Functional neuroanatomy of the basal ganglia as studied by dual-probe microdialysis». *Nucl Med Biol*, **25**, 743-746.

- [16] ONN, S. P.; WEST, A. R. eta GRACE, A.A. 2000. «Dopamine-mediated regulation of striatal neuronal and network interactions». *Trends Neurosci*, **23**, S48-56.
- [17] PAUL, M. L.; GRAYBIEL, A. M.; DAVID, J. C. eta ROBERTSON, H. A. 1992. «D1-like and D2-like dopamine receptors synergistically activate rotation and c-fos expression in the dopamine-depleted striatum in a rat model of Parkinson's disease». *J Neurosci*, **12**, 3729-3742.
- [18] SVENNINGSSON, P.; FREDHOLM, B. B.; BLOCH, B. eta LE MOINE, C. 2000. «Co-stimulation of D(1)/D(5) and D(2) dopamine receptors leads to an increase in c-fos messenger RNA in cholinergic interneurons and a redistribution of c-fos messenger RNA in striatal projection neurons». *Neuroscience*, **98**, 749-757.
- [19] GIUFFRIDA, A.; PARSONS, L. H.; KERR, T. M.; RODRÍGUEZ DE FONSECA, F. eta NAVARRO, M. 1999. «Dopamine activation of endogenous cannabinoid signaling in dorsal striatum». *Nat Neurosci*, **2**, 358-363.
- [20] MESCHLER, J. P. eta HOWLETT, A.C. 2001. «Signal transduction interactions between CB1 cannabinoid and dopamine receptors in the rat and monkey striatum». *Neuropharmacology*, **40**, 918-926.
- [21] GLASS, M. eta FELDER, C. C. 1997. «Concurrent stimulation of cannabinoid CB1 and dopamine D2 receptors augments cAMP accumulation in striatal neurons: evidence for a Gs linkage to the CB1 receptor». *J Neurosci*, **17**, 5327-5333.
- [22] VAN DER STELT, M. eta DI MARZO, V. 2003. «The endocannabinoid system in the basal ganglia and in the mesolimbic reward system: implications for neurological and psychiatric disorders». *Eur J Pharmacol*, **480**, 133-150.
- [23] BROTHCIE, J. M. 2003. «CB1 cannabinoid receptor signalling in Parkinson's disease». *Curr Opin Pharmacol*, **3**, 54-61.
- [24] CAVANAUGH, D. J.; CHESLER, A. T.; JACKSON, A. C.; SIGAL, Y. M. eta YAMANAKA, H. 2011. «Trpv1 reporter mice reveal highly restricted brain distribution and functional expression in arteriolar smooth muscle cells». *J Neurosci*, **31**, 5067-5077.
- [25] CRISTINO, L.; DE PETROCELLIS, L.; PRYCE, G.; BAKER, D. eta GUGLIELMOTTI, V. 2006. «Immunohistochemical localization of cannabinoid type 1 and vanilloid transient receptor potential vanilloid type 1 receptors in the mouse brain». *Neuroscience*, **139**, 1405-1415.
- [26] MEZEY, E.; TOTH, Z. E.; CORTRIGHT, D. N.; ARZUBI, M. K. eta KRAUSE, J. E. 2000. «Distribution of mRNA for vanilloid receptor subtype 1 (VR1), and VR1-like immunoreactivity, in the central nervous system of the rat and human». *Proc Natl Acad Sci U S A*, **97**, 3655-3660.
- [27] MICALE V.; CRISTINO, L.; TAMBURELLA, A.; PETROSINO, S. eta LEGGIO, G.M. 2009. «Anxiolytic effects in mice of a dual blocker of fatty acid amide hydrolase and transient receptor potential vanilloid type-1 channels». *Neuropsychopharmacology*, **34**, 593-606.

- [28] ANDERSON, L. A.; ANDERSON, J. J.; CHASE, T. N. eta WALTERS, J. R. 1995. «The cannabinoid agonists WIN 55,212-2 and CP 55,940 attenuate rotational behavior induced by a dopamine D1 but not a D2 agonist in rats with unilateral lesions of the nigrostriatal pathway». *Brain Res*, **691**, 106-114.
- [29] CRAWLEY, J. N.; CORWIN, R. L.; ROBINSON, J. K.; FELDER, C. C. eta DEVANE, W. A. 1993. «Anandamide, an endogenous ligand of the cannabinoid receptor, induces hypomotility and hypothermia in vivo in rodents». *Pharmacol Biochem Behav*, **46**, 967-972.
- [30] DE LAGO, E.; DE MIGUEL, R.; LASTRES-BECKER, I.; RAMOS, J. A. eta FERNÁNDEZ-RUIZ, J. 2004. «Involvement of vanilloid-like receptors in the effects of anandamide on motor behavior and nigrostriatal dopaminergic activity: in vivo and in vitro evidence». *Brain Res*, **1007**, 152-159.
- [31] NAVARRO, M.; FERNÁNDEZ-RUIZ, J. J.; DE MIGUEL, R.; HERNÁNDEZ, M. L. eta CEBEIRA, M. 1993. «Motor disturbances induced by an acute dose of delta 9-tetrahydrocannabinol: possible involvement of nigrostriatal dopaminergic alterations». *Pharmacol Biochem Behav*, **45**, 291-298.
- [32] PRESCOTT, W. R.; GOLD, L. H. eta MARTIN, B. R. 1992. «Evidence for separate neuronal mechanisms for the discriminative stimulus and catalepsy induced by delta 9-THC in the rat». *Psychopharmacology (Berl)*, **107**, 117-124.
- [33] ROMERO, J.; GARCÍA, L.; CEBEIRA, M.; ZADROZNY, D. eta FERNÁNDEZ-RUIZ, J. J. 1995. «The endogenous cannabinoid receptor ligand, anandamide, inhibits the motor behavior: role of nigrostriatal dopaminergic neurons». *Life Sci*, **56**, 2033-2040.
- [34] COMPTON, D. R. eta MARTIN, B. R. 1997. «The effect of the enzyme inhibitor phenylmethylsulfonyl fluoride on the pharmacological effect of anandamide in the mouse model of cannabimimetic activity». *J Pharmacol Exp Ther*, **283**, 1138-1143.
- [35] GONZÁLEZ, S.; ROMERO, J.; DE MIGUEL, R.; LASTRES-BECKER, I. eta VILLANUA, M. A. 1999. «Extrapyramidal and neuroendocrine effects of AM404, an inhibitor of the carrier-mediated transport of anandamide». *Life Sci*, **65**, 327-336.
- [36] COMPTON, D. R.; ACETO, M. D.; LOWE, J. eta MARTIN, B. R. 1996. «In vivo characterization of a specific cannabinoid receptor antagonist (SR141716A): inhibition of delta 9-tetrahydrocannabinol-induced responses and apparent agonist activity». *J Pharmacol Exp Ther*, **277**, 586-594.
- [37] LEDENT, C.; VALVERDE, O.; COSSU, G.; PETITET, F. eta AUBERT, J. F. 1999. «Unresponsiveness to cannabinoids and reduced addictive effects of opiates in CB1 receptor knockout mice». *Science*, **283**, 401-404.
- [38] ZIMMER, A.; ZIMMER, A. M.; HOHMANN, A. G.; HERKENHAM, M. eta BONNER, T. I. 1999. «Increased mortality, hypoactivity, and hypoalgesia in cannabinoid CB1 receptor knockout mice». *Proc Natl Acad Sci U S A*, **96**, 5780-5785.
- [39] JULIÁN M. D.; MARTÍN, A. B.; CUELLAR, B.; RODRÍGUEZ DE FONSECA, F. eta NAVARRO, M. 2003. «Neuroanatomical relationship between type 1 cannabinoid receptors and dopaminergic systems in the rat basal ganglia». *Neuroscience*, **119**, 309-318.

- [40] MATYAS, F.; YANOVSKY, Y.; MACKIE, K.; KELSCH, W. eta MISGELD, U. 2006. «Subcellular localization of type 1 cannabinoid receptors in the rat basal ganglia». *Neuroscience*, **137**, 337-361.
- [41] SZABO, B.; WALLMICHRATH, I.; MATHONIA, P. eta PFREUNDTNER, C. 2000. «Cannabinoids inhibit excitatory neurotransmission in the substantia nigra pars reticulata». *Neuroscience*, **97**, 89-97.
- [42] WALLMICHRATH, I. eta SZABO, B. 2002. «Cannabinoids inhibit striatonigral GABAergic neurotransmission in the mouse». *Neuroscience*, **113**, 671-682.
- [43] FRENCH, E. D.; DILLON, K. eta WU, X. 1997. «Cannabinoids excite dopamine neurons in the ventral tegmentum and substantia nigra». *Neuroreport*, **8**, 649-652.
- [44] MELIS, M.; GESSA, G. L. eta DIANA, M. 2000. «Different mechanisms for dopaminergic excitation induced by opiates and cannabinoids in the rat mid-brain». *Prog Neuropsychopharmacol Biol Psychiatry*, **24**, 993-1006.
- [45] MORERA-HERRERAS, T.; RUIZ-ORTEGA, J. A.; GÓMEZ-URQUIJO, S. eta UGEDO, L. 2008. «Involvement of subthalamic nucleus in the stimulatory effect of Delta(9)-tetrahydrocannabinol on dopaminergic neurons». *Neuroscience*, **151**, 817-823.
- [46] SOLINAS, M.; JUSTINOVA, Z.; GOLDBERG, S. R. eta TANDA, G. 2006. «Anandamide administration alone and after inhibition of fatty acid amide hydro-lase (FAAH) increases dopamine levels in the nucleus accumbens shell in rats». *J Neurochem*, **98**, 408-419.
- [47] TANDA, G.; PONTIERI, F. E. eta DI CHIARA, G. 1997. «Cannabinoid and heroin activation of mesolimbic dopamine transmission by a common mu1 opioid receptor mechanism». *Science*, **276**, 2048-2050.
- [48] MARINELLI, S.; DI MARZO, V.; BERRETTA, N.; MATIAS, I. eta MACCARRONE, M. 2003. «Presynaptic facilitation of glutamatergic synapses to dopaminergic neurons of the rat substantia nigra by endogenous stimulation of vanilloid receptors». *J Neurosci*, **23**, 3136-3144.
- [49] MARINELLI, S.; DI MARZO, V.; FLORENZANO, F.; FEZZA, F. eta VISCOMI, M. T. 2007. «N-arachidonoyl-dopamine tunes synaptic transmission onto dopaminergic neurons by activating both cannabinoid and vanilloid receptors». *Neuropsychopharmacology*, **32**, 298-308.
- [50] GABELLINI, P.; PICCONI, B.; BARI, M.; BATTISTA, N. eta CALABRESI, P. 2002. «Experimental parkinsonism alters endocannabinoid degradation: implications for striatal glutamatergic transmission». *J Neurosci*, **22**, 6900-6907.
- [51] TANG, K.; LOW, M. J.; GRANDY, D. K. eta LOVINGER, D. M. 2001. «Dopamine-dependent synaptic plasticity in striatum during in vivo development». *Proc Natl Acad Sci U S A*, **98**, 1255-1260.
- [52] TSENG, K. Y.; KASANETZ, F.; KARGIEMAN, L.; RIQUELME, L. A. eta MURER, M. G. 2001. «Cortical slow oscillatory activity is reflected in the membrane potential and spike trains of striatal neurons in rats with chronic nigrostriatal lesions». *J Neurosci*, **21**, 6430-6439.
- [53] MALLET, N.; BALLION, B.; LE MOINE, C. eta GONON, F. 2006. «Cortical inputs and GABA interneurons imbalance projection neurons in the striatum of parkinsonian rats». *J Neurosci*, **26**, 3875-3884.

- [54] PISANI, A.; FEZZA, F.; GALATI, S.; BATTISTA, N. eta NAPOLITANO, S. 2005. «High endogenous cannabinoid levels in the cerebrospinal fluid of untreated Parkinson's disease patients». *Ann Neurol*, **57**, 777-779.
- [55] PISANI, V.; MOSCHELLA, V.; BARI, M.; FEZZA, F. eta GALATI, S. 2010. «Dynamic changes of anandamide in the cerebrospinal fluid of Parkinson's disease patients». *Mov Disord*, **25**, 920-924.
- [56] LASTRES-BECKER, I.; CEBEIRA, M.; DE CEBALLOS, M. L.; ZENG, B.Y. eta JENNER, P. 2001. «Increased cannabinoid CB1 receptor binding and activation of GTP-binding proteins in the basal ganglia of patients with Parkinson's syndrome and of MPTP-treated marmosets». *Eur J Neurosci*, **14**, 1827-1832.
- [57] VAN LAERE, K.; CASTEELS, C.; LUNSKENS, S.; GOFFIN, K. eta GRACHEV, I.D. 2012. «Regional changes in type 1 cannabinoid receptor availability in Parkinson's disease in vivo». *Neurobiol Aging*, **33**, 620 e621-628.
- [58] GONZÁLEZ, S.; MENA, M. A.; LASTRES-BECKER, I.; SERRANO, A. eta DE YEBENES, J. G. 2005. «Cannabinoid CB(1) receptors in the basal ganglia and motor response to activation or blockade of these receptors in parkin-null mice». *Brain Res*, **1046**, 195-206.
- [59] MACCARRONE, M.; GUBELLINI, P.; BARI, M.; PICCONI, B. eta BATTISTA, N. 2003. «Levodopa treatment reverses endocannabinoid system abnormalities in experimental parkinsonism». *J Neurochem*, **85**, 1018-1025.
- [60] FERRER, B.; ASBROCK, N.; KATHURIA, S.; PIOMELLI, D. eta GIUFFRIDA, A. 2003. «Effects of levodopa on endocannabinoid levels in rat basal ganglia: implications for the treatment of levodopa-induced dyskinesias». *Eur J Neurosci*, **18**, 1607-1614.
- [61] SILVERDALE, M. A.; MCGUIRE, S.; MCINNES, A.; CROSSMAN, A. R. eta BROTHIE, J. M. 2001. «Striatal cannabinoid CB1 receptor mRNA expression is decreased in the reserpine-treated rat model of Parkinson's disease». *Exp Neurol*, **169**, 400-406.
- [62] WALSH, S.; MNICH, K.; MACKIE, K.; GORMAN, A. M. eta FINN, D. P. 2010. «Loss of cannabinoid CB1 receptor expression in the 6-hydroxydopamine-induced nigrostriatal terminal lesion model of Parkinson's disease in the rat». *Brain Res Bull*, **81**, 543-548.
- [63] KREITZER, A. C. eta MALENKA, R. C. 2007. «Endocannabinoid-mediated rescue of striatal LTD and motor deficits in Parkinson's disease models». *Nature*, **445**, 643-647.
- [64] ROMERO, J.; BERRENDERO, F.; PÉREZ-ROSADO, A.; MANZANARES, J. eta ROJO, A. 2000. «Unilateral 6-hydroxydopamine lesions of nigrostriatal dopaminergic neurons increased CB1 receptor mRNA levels in the caudate-putamen». *Life Sci*, **66**, 485-494.
- [65] CALABRESI, P.; PICCONI, B.; TOZZI, A. eta DI FILIPPO, M. 2007. «Dopamine-mediated regulation of corticostriatal synaptic plasticity». *Trends Neurosci*, **30**, 211-219.
- [66] CENTONZE, D.; GUBELLINI, P.; PICCONI, B.; CALABRESI, P. eta GIACOMINI, P. 1999. «Unilateral dopamine denervation blocks corticostriatal LTP». *J Neurophysiol*, **82**, 3575-3579.

- [67] PICCONI, B.; PISANI, A.; BARONE, I.; BONSI, P. eta CENTONZE, D. 2005. «Pathological synaptic plasticity in the striatum: implications for Parkinson's disease». *Neurotoxicology*, **26**, 779-783.
- [68] LOVINGER, D. M. 2010. «Neurotransmitter roles in synaptic modulation, plasticity and learning in the dorsal striatum». *Neuropharmacology*, **58**, 951-961.
- [69] SHEN, W.; FLAJOLET, M.; GREENGARD, P. eta SURMEIER, D. J. 2008. «Dichotomous dopaminergic control of striatal synaptic plasticity». *Science*, **321**, 848-851.
- [70] FERNÁNDEZ-ESPEJO, E.; CARABALLO, I.; DE FONSECA, F. R.; EL BANOUA, F. eta FERRER, B. 2005. «Cannabinoid CB1 antagonists possess antiparkinsonian efficacy only in rats with very severe nigral lesion in experimental parkinsonism». *Neurobiol Dis*, **18**, 591-601.
- [71] GONZÁLEZ, S.; SCORTICATI, C.; GARCÍA-ARENIBIA, M.; DE MIGUEL, R. eta RAMOS, J. A. 2006. «Effects of rimonabant, a selective cannabinoid CB1 receptor antagonist, in a rat model of Parkinson's disease». *Brain Res*, **1073-1074**, 209-219.
- [72] KELSEY, J. E.; HARRIS, O. eta CASSIN, J. 2009. «The CB(1) antagonist rimonabant is adjunctively therapeutic as well as monotherapeutic in an animal model of Parkinson's disease». *Behav Brain Res*, **203**, 304-307.
- [73] VAN DER STELT, M.; FOX, S. H.; HILL, M.; CROSSMAN, A. R. eta PETROSINO, S. 2005. «A role for endocannabinoids in the generation of parkinsonism and levodopa-induced dyskinesia in MPTP-lesioned non-human primate models of Parkinson's disease». *FASEB J*, **19**, 1140-1142.
- [74] CARROLL, C. B.; BAIN, P. G.; TEARE, L.; LIU, X. eta JOINT, C. 2004. «Cannabis for dyskinesia in Parkinson disease: a randomized double-blind crossover study». *Neurology*, **63**, 1245-1250.
- [75] FERNÁNDEZ-RUIZ, J. 2009. «The endocannabinoid system as a target for the treatment of motor dysfunction». *Br J Pharmacol*, **156**, 1029-1040.
- [76] GARCÍA-ARENIBIA, M.; FERRARO, L.; TANGANELLI, S. eta FERNÁNDEZ-RUIZ, J. 2008. «Enhanced striatal glutamate release after the administration of rimonabant to 6-hydroxydopamine-lesioned rats». *Neurosci Lett*, **438**, 10-13.
- [77] JEON, P.; YANG, S.; JEONG, H. eta KIM, H. 2011. «Cannabinoid receptor agonist protects cultured dopaminergic neurons from the death by the proteasomal dysfunction». *Anat Cell Biol*, **44**, 135-142.
- [78] CHUNG, Y. C.; BOK, E.; HUH, S. H.; PARK, J. Y. eta YOON, S. H. 2011. «Cannabinoid receptor type 1 protects nigrostriatal dopaminergic neurons against MPTP neurotoxicity by inhibiting microglial activation». *J Immunol*, **187**, 6508-6517.
- [79] PRICE, D. A.; MARTÍNEZ, A. A.; SEILLIER, A.; KOEK, W. eta ACOSTA, Y. 2009. «WIN55,212-2, a cannabinoid receptor agonist, protects against nigrostriatal cell loss in the 1-methyl-4-phenyl-1,2,3,6-tetrahydropyridine mouse model of Parkinson's disease». *Eur J Neurosci*, **29**, 2177-2186.
- [80] CARROLL, C. B.; ZEISSLER, M. L.; HANEMANN, C. O. eta ZAJICEK, J. P. 2012. «Delta(9)-tetrahydrocannabinol (Delta(9)-THC) exerts a direct neuroprotective effect in a human cell culture model of Parkinson's disease». *Neuropathol Appl Neurobiol*, **38**, 535-547.

- [81] AHLSKOG, J. E. eta MUENTER, M. D. 2001. «Frequency of levodopa-related dyskinesias and motor fluctuations as estimated from the cumulative literature». *Mov Disord*, **16**, 448-458.
- [82] MATHUR, B. N.; CAPIK, N. A.; ÁLVAREZ, V. A. eta LOVINGER, D. M. 2011. «Serotonin induces long-term depression at corticostriatal synapses». *J Neurosci*, **31**, 7402-7411.
- [83] MARTÍNEZ, A.; MACHEDA, T.; MORGESE, M. G.; TRABACE, L. eta GIUFFRIDA, A. 2012. «The cannabinoid agonist WIN55212-2 decreases L-DOPA-induced PKA activation and dyskinetic behavior in 6-OHDA-treated rats». *Neurosci Res*, **72**, 236-242.
- [84] MORGESE, M. G.; CASSANO, T.; CUOMO, V. eta GIUFFRIDA, A. 2007. «Antidyskinetic effects of cannabinoids in a rat model of Parkinson's disease: role of CB(1) and TRPV1 receptors». *Exp Neurol*, **208**, 110-119.
- [85] PÉREZ-RIAL, S.; GARCÍA-GUTIÉRREZ, M. S.; MOLINA, J. A.; PÉREZ-NIEVAS, B. G. eta LEDENT, C. 2011. «Increased vulnerability to 6-hydroxydopamine lesion and reduced development of dyskinesias in mice lacking CB1 cannabinoid receptors». *Neurobiol Aging*, **32**, 631-645.
- [86] FOX, S. H.; HENRY, B.; HILL, M.; CROSSMAN, A. eta BROTHIE, J. 2002. «Stimulation of cannabinoid receptors reduces levodopa-induced dyskinesia in the MPTP-lesioned nonhuman primate model of Parkinson's disease». *Mov Disord*, **17**, 1180-1187.
- [87] MESNAGE, V.; HOUETO, J. L.; BONNET, A. M.; CLAVIER, I. eta ARNULF, I. 2004. «Neurokinin B, neurotensin, and cannabinoid receptor antagonists and Parkinson disease». *Clin Neuropharmacol*, **27**, 108-110.